

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

316n. zenbakia

2006 aprilla



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

JOANES ETXEBARRI (XVII GIZALDIA)

Joanes Etxebarri idazlearen eskutik sartzen gara XVII gizaldira eta gizaldi onetan euskereak iparraldean izan eban lora-aldia.

Abade zan, Ziburu'n jaioa eta bertan artzain izana 1637n. urtera arte, baiña ez dakigu zein urtetan jaio eta zeinetan il zan.

Gizon jakintsua izan zan, maixua edo "doktor", teologoa.

Iru liburu idatzi ebazan: 1) Manual debozinezkoa. Au 1627n. urtean agertu zan eta Kristo'ren bizitza eta otoi-tzak dakaz. 2) Noelak: 1631n. urtean argitaratua da eta lau zati ditu: a) Kristoren aurreko agintzak edo igarleen esanak. b) 19 noel edo gabon-abesti. d) Kristo'ren bizitza amasei kantutan eta

e) Jainkoaren eta santuen omenezko kantak. Loiola'ko Ignazio'ri eskerrak emonez amaitzen dau liburua. 3) 1636, Eleizara erabiltzeko liburua

Iurak dira bertsoz egiñak eta gaia beti da Kristo edo Andra Maria edo kristiñau-bizitza.

Ikusten da zarra dala bertsoz idazteko oiturea, bai euskeraz eta bai erderetan. Bertsoz ez dagoana ez eben uste elertia zanik, gaiñera orrelan abesteko erreztasuna sortzen da.

Ona zelan diñon berak zergaitik bertsoz idazten dauan:

"Giristinoa, eman diat eskara bertsoan
katoliko manuala neure asti-ordutan.

Ikusirik, nola bainaiz iaiotzez eskalduna,
gure nazioa dela koplamaite duena,
hartarakotz iakiaraz diat bertsoz ezarri:
lasterrago ikhas eta maizago aiphagarri"

Era askotara egiten dira bertsoak antxiñatik, baiña geien erabilliak zortziko nagusia (1-3-5-7^a amar silabakoak erdian etenagaz eta 2-4-6-8 zortzi silabakoak) eta zortziko txikia (8/7) izan dira.

Berak dana bertsoz idatzi eban, baiña tokiren baten zerbait itz lauz idatzita aurkitu dautsoenak diño obeto idazten dauala itz lauz.. Bere gizaldiko idazleen artean trebeena ta ugariena da.

Garibai'k eta Etxabe'k euskerea jakiñik erderaz idazten dabelako burla egiten dautse:

"Burlatzen naiz Garibaiez,

bai alaber Etxabez,

zeñek mintzatzen baitire

erderaz Eskaldunez.

Ezen zirenaz gerotik,

Eskaldunak hek biak,

Eskaraz bear zituzten

Egin bere historiak"

Olako euskal-zaletasuna bear leukee gaur be idazle askok

Olazar'tar Martin'ek

OGIA

Garitz eder bat dago
etxe-ziro azpiko
solo zabaluan,
zerua urdin dago,
eguzki onduta,
beren ederrian.

Egunik egunera garitza edertzen da
argitasunera,
galburu mamintsuak
urretuten doazi
argien erara.

Etxeko ugezaba,
pozez, beterik dado soloaren aurrez,
igetaiak gerturik,
gogoak indartuta,
garitzaren pozez

Martitzen egun eder,
ordu onian dator
eguzki argiaz,
aupara, mutil jatorrak,
gaur, etxera doazi
garau ederrenak.

Ama gerturik dago,
laba-sua eginik,
ogi erretako,
biar, ogi zuriak
maian egongo dira
gure bizirako.

Egiz, ogi zuriak,
giro onian dagoz
bazkari orduan,
goira gure garitza,
gora laba-su eder
maiaren onduan.

Paulin

1.-EDESTIA: NONDIK NORA: ABRAAM

Edesti edo istoriari buruz idaz-lan batzuk egitea otu jat, baiña lenago argitu daigun nondik nora begiratzeko dogun edestia.

Ez edesti osoa. Asieratik, erriak sortu ziranetik asiko gara, K.a.'ko 2000n. urte-ingurutik. Or aurkitzen dogu irudi aundi eta eder bat: Abraam.

Ez dogu begiratzeko edesti oso lurraren zabaleran be: Txina'n erri zarra daukagu, India'n "Veda" deritxen liburu zarrak bide dirala, Ameriketako inkak eta antzeko aginterriak aztertu bearke geunkez, eta toki guztietan erriak eta erriak.

Guk Europa'ren edestia artuko dogu kontuan eta, gainera, kristiñauen erlejiñoa oiñarri dala eta ikuspegi orretatik aztertuko doguz gure inguru onetan, Euskalerrian, agertzen diran jazokizunak.

Baiña Abraam'egandik asi baiño lenago, bagiratu dagoigun, labur, gure jakintzaren oiñarrian dagoan Grezia'ko jakituria. Egia da, euskaldunen jakintza zarragoa dala eta onek Grezia'ren ikutu gitxi daukala, baiña zerbait jakitea ondo etorriko jaku, gure inguruaz aztertzeko.

Sokrates dogu giltza. Onen aurretik presokratikoak daukaguz, batez be Pitagoras, eta onen inguruan Platon eta Aristoteles filosofo guztien oiñarri lez.

Platon'en bidea ez jaku atsegin, zentzuetatik gugana sartzen ez diran ezaupide batzuk jarten dauzako. Atsegiñago jaku Aristoteles'en bidea, ezaupide guztiak zentzuetatik eta adimenaren bidez jatorkuzako.

Filosofo bi orreik euki bear doguz argi, edestia ulertzeko, eta, guzaldien joanean, era batera edo bestera, orreik aurkituko doguz.

Erriak sortu ziranean, K.a.'tik bi milla urte-inguruan, Ur (izen euskalduna?) eritxon Kaldea'ko eritxu

baten Abraam bizi zan: Gizon zintzoa, jainko bakarra gurtzen ebana... Onek bere inguruan Kaldea'ko erriarrak okerreko bidetik joiazela ikusi eban eta bere barruan Jainko bakarraren deia entzun eban: Urten egizu zeure sendi eta erititik ez zoaz neuk esango dautzudan lurralde batera.

Eta Abraam joan egin zan.

Orra or erri ospetsu biren sorkuntza: Israel'darrak Sara bere emaztearen aldetik eta Ismael'darrak Agar bere mirabearen aldetik. Guztiak Jainko bakarraren gurtzailleak

Joan zan Abraam Jainkoak izendatu eutson Kanaam lurraldera. Antxe bizi izan zan eta antxe il be. Eta Magpelak eritxon illobian lurperatu eben. Illobi ori gaur agiri diran triku-arri (dolmen) eta komletx'en sasoikoa da, artzaiñen sasoikoa, eta triku-arria edo dolmena izango zan.

Kristiñauak garanok be, Abraam'en ondorengoak gara, ez odoletiko seme-alabak, agintzarien ondorengoan baiño.

Eta iru erriak (judatarrena, ismaeldarrena eta kristiñauena) alkartu ezker, ia mundurik erdia gara. Zelako aukerea geure artean ondo konpondu ezker, munduko bakea eta aurrerapena lortzeko. Ortik doa kulturaren edo jakintzen alkar-izketaren bidea.

Baiña ez da gauza erreza. Errez apurtzen da bakebide ori. Oraintsu naikoa izan da Mahoma'ren irudiak agertzea, iñon diran asarreak sortzeko.

Dana dala, bide orretatik joan II Joan Paul Aita Santuaren asmoa Sinai mendian iru erri orreik batu ebazanean.

Olazar'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eigu!

Ebago orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

LEGEDIA'REN ETA DEMOKRAZIA'REN ARTEKO EGOKITASUNA TA ASKATASUNA

SARRERA:

Gure eginkizunetan, Legedia'ren arauak eta Demokraziz'ko itz-bi oneik, Mundu onek berezko legean oiñarrituta daukazanakaz, uste berean betetan ba-dira, gizar-tean, ASKATASUNAREN itza, berez agertzen da.

Euskalerrian eta beste berezko errietan zoritxarrez baiña, beste gauza batzuk sortzen dira, XIX'n gizalditik ona, menperatuta gagozelako.

Menperatzaillak, demokratik dirala esaten dabe. Eta ortik asi-ta, ez dago guzur aundiagorik.

Demokrazia, baktzari bere eskubidean zor-jakona emotea esan gura dau, eta Euskalerrira'ri, bere jaiotasunaren aberriko laterritasuna.

Zelan baiña... itz-bi orreik, aditz-joko onenean ezarri, bitxikeri oneik entzuten ba-doguz?: (Rojo'tar Jabier, senatore-batzarreko lendakaria'k, DEIA'n 2.005'ko Urtarrilla'ren 13'an) "PSOE ez da izketatuko Espaiña'ko lege nausi edo konstituzioa autsi edo zapaldu egiten dabena-kaz, Euskadirentzako euren asmo-montio, eredu edo eskemak daukiezelako". Eta Rajoi'tar Mariano'k (DEIA'ko zerrenda berean): "Ate guztiak ertsi edo itxi bear jakiez, nor-berean erabakian edo auto-determinazi-ñoaren ameskerian dabizenai".

Itz orrei... Demokrazia'ren zentzua, non atzeman edo onartu?

Gaur egun, Demokrazia'ren itza, argi dago itz-bat baiño besterik ez dala. Orregaitik sakondu bear doguz gure eginkizunak Demokrazi'runtz, gure Nortasunaren eskubideak lortzea gura ba-dogu.

Menperatzaillak or ! ez daukie zeregiñik.

LEGEA:

Legearen zentzuzko arauak, erkidetasuneko gizarte guztia beartzen dau, ekandu edo oitura baten lan egitera, elburuak lortu gura ba-dira.

Erkidetasunaren zentzuzko elburuak lortzeko, beste gauzarik ezin dala egin, esan nai dau orrek.

Lege'aren ezarpena, JAINKOA'k Ludi oneri sartuta daukazan bezala, danon artean, orren arduragaz aukeratu-ta, kargutan edo jaurbidean ezartzen doguzanak baka-rrik egin leikez. Erritarren borondatea dalako.

Legearen nai aundiena, IZATEA da. Erkidegoko gizarte guztiaren naikundea gogaldu eta egian atsegindu-ten danean. Ori dalako jaiotzaren elburua.

Gaur egun, elburu ori zelan lortu ?. Erreza da: JAINKOA'k, Mundu oneri ipinitako legeak beteta.

Ez dauka beste biderik JAINKOA'ren askatasuna lortu gura ba-dogu, gu-be, ardurazko lege orregaz erperata gagozelako.

Mundu onetan orregaitik, ezin da egizko legerik egin, JAUNGOIKOA'k ipinitako legetik kanpo, edo, BEREN

zentzuzko legetik ez ba-dira gogoz bakandu edo bereiz-ten. Gure eginkizunak, gizar-tearen eskubideekin adosta-sunean egon daitezzen.

EUROPA GAUR, ORAINDIÑO ERROMATA-RRAK ASMATUTAKO LEGEEKIN DABIL ZORI-TXARREZ.

DEMOKRAZIA:

Erriaren agintza, bere erritarren autarki bidez, esan gura dau itz orrek.

K.a. VII'n gizaldian, Grezia'k Ekialdeko Asia-txike-rretik euki ebazan sortutako erri edo kolonitik agertu ziran egarri orreik, erriko gizar-tearen aztura- gaitik. Gero, K.a. V'n gizaldian Perikles'ek antolatu ebana, erri-tar guztien eskubideak babesteko naian.

Demokrazia'k, gora-beera asko euki dauz edestitik zear, norkerietan ibili diranak, asko izan diralako. Gaur be, begitzea baiño ez dago, zelako arazoak daukaguzan XIX'n gizaldian, espatakaz ipinitako Laterri oneikin.

Laterri orrei ezker, Demokraziaren itza entzun, entzu-ten dogu. Ikusi, igarri, oartu, nabaitu edo usaindu baiña, iñundik iñora be ez.

Berez jaiotako erri asko dira oraindiño, milla-urte askotan bizitzako ikaskizu- nak ondo oituratuta, euren jakintasunezko-barruan, daukiezan indar guztiekin Eus-kalerrira-lez zaindu egiten dagozenak. Eta ori da azken baten borroka bakarra, gizar-tearen zor-eskubideak ekan-du onean banandu egin daitezzen. BATZUEN-GANDIK, NORKERIEAN BIDEZ erabilten diralako, daukien sasi-jainkotasunaren asmakizunak beteteko..

ASKATASUNA:

Askatasuna, ez da beste gauzarik, gizar-tearen zor-eskubideak, ardurazko lotsa aundian banatzen diran' en ondoriora baiño.

Nortasunaren ardurazko lotsai, bakea ta lasaitasuna emoten dautsezalako.

Gaurko egunetan, nai irugarren gizaldian egonda be, bakea lortzea ez da gauza erreza, sasi-jainkotasunezko NAIKERIAN dabizenak gitxi izanda-be, esku-artean indar asko daukielako, Mundu onen gizarte guztia, lotsa-ren arduratik atarata eta zoraldira bideratuta, daukien asmakizunetan menperatzeko.

Euskadiren gizar-tea konturatu bear da, menperatzaillaren guzurrak argi ta agiri-agirian itzi bear dirala eta Mundu ta Europako atzerrietan erakutsi, euren laguntza-gaz askatasuna lortzeko. ETA ORI, DEMOKRAZIAN ETENBAKO-LAN SAKONA EGINDA LORTZEN DA.

ATUTXA'tar PAUL ZORNOTZA'n 2.006'an URTARRILLA'ren 19'an

XI. ARRAIÑAK

Begiratu dagiegun orain urpean bizi diran piztia, arraiñai eta itxasoko piztitzarri.

Itxas-barrua arrain ugari eta apaingarriz beterik dago.

Sortalde urriñean eta Brasil'en arrain-mota arrotzak eta biziak dagoz, esaterako aingeru-arraiña, ezpatadunak, burrukalariak eta txantxitoa.

Arrain margodunak gure itxasoen apaingarriak dira eta gure baratzeko ur-tokietara be ekartzen doguz, bear ba'da. Jatorriz, txinatarrak izango dira.

Margo orreik lortzeko zaindu egin bear: Japon'en eta Italia'ko itxas-ertzetan egiten dabez umeak, eta ume oneik eguzkiak jotzen dauan lekuan ipiñi bear dira eta oparo jaten emon, gero ura aldatu eta ur berotara eroan, karaitz eta meatz-gaiz buztialdiak artu bear dabez... eta ori dana ondo egin-ondoren, azkenean margoz jantzita agertzen dira.

...

Belarri-ingurutik arnasa artzen dabe arraiñak, euren soindarrak egatzak dira eta gorputza ezkatat estalduta dauke.

Arrain azurdunak batzuk ur gozoan bizi dira, esaterako angillea, beste mota asko itxasoan dabilte, esaterako sardiña, atuna, txitxarroa, zapataria, beste batzuk urriñeko itxasoetan aurkitzen dira eta ara joan bear dau arrapau nai dauzanak, esaterako makallaua.

Beste batzuk azur zuridunak dira, esaterako aingeru guardakoa deritxona.

Ba-dira itxasotik ur gozora joan-etorriak egiten dabezenak be .

...

IBAIETAKO ARRAIÑAK

Ur-otsoa deritxona itxas-lapurren antzekoa da, agin zorrotzak ditu eta arrain txiki asko jaten dau. Bakarrik bizi izaten da eta bere eraso arraiñai, igelai eta ur-txoriak egiten dautse.

Eskandinabia-aldean ur-otsoak metro bat baiño geiago dauke luze.

Perka da onen antzeko ibai-arraiña eta asko jan bearrekoa. Arrantzaleak esaten dabe "perkak alde guztietatik sistatzen dauala", arantzazko belarriak dauzalako. Aintziretan eta enbor zarren abarretan egiten dauz arrautzak eta ura jatsiten danean eguzkiak ateraten dauz umeak.

Zamoa deritxona ur geldietan bizi da eta diz-diz beillegia edo oria dauka jantzi illunaren alboetan. Ezkata gutxi daukaz, baiña daukazanak gogorak.

Amurraiña edo arrankaria arrapatzea ez da gauza erreza izaten trebea ez danarentzat. Margoak aldatzen dauz zelako uretan bizi dan alan. Norwega'n aintzira baltz sakonetan ortzi-adarraren margo guztiak artzen dauz. Balbarri zoliak dauz eta arrantzalearen oin-otsak entzuten ditu.

Itxasoak gauza ezkutu asko daukaz gordeta oraindik eta, bear ba'da, ez doguz ezagutuko sekula be.

Arraiñik txikiena, azurdunen artean, Filipiñetan bizi dan talamazoka da: 0'01 m.

ITXAS-PIZTITZARRAK

Mota askotakoak dira arraiñak, itxura eta kolore guztietakoak: lauak eta luzatuak, zerrenda-antzekoak, ardatz-antzekoak, leunak naiz arantzatsuak, otzanak eta ankerrak, garbiak eta pozoitsuak, guztiak egiten dabe uger eta batzuk egaz be bai, batzuk ibilli egiten dira eta beste batzuk zugatzetara igon be bai, ba-dagoz abestu egiten dabenak be.

Tiburoia da itxasoko marrazo edo piztitzar bat eta arrain txikiak sarritan beronen gorputzari lotuta bizi dira bentosa baten antzera

Ba-dira gizonari erasoten dautsoen arraiñak be, esaterako pirañak. Oneik aragi-jale txikiak dira eta Egoamerika'ko ibaietan bizi. Aldi labur baten txikitzen dabe uretara jausten dan beia edo idia. Ur-amiarma itxasoko ondarratan egoten da ezkutatuta, eta ikutzen dautson oiñari eztena sartu eta pozoia ezarten dautso. Itxas-suge edendunak erromatarren artean jopuen, esklaboen, gorpuzkiak artzen ebazan jateko, eta marmokak tximist antzeko bat botaten dau, gizonik zendoena gogortzeko indarra daukana.

Ba-dago marrazko tiburoi bat itxas-katamotza deritxona. Onek burrukan asi baiño len iges egiten dau, ez da ba ain txarra.

Baleak 13 m. luze euki leikez. Gelbearen narruak paper latz lez balio dau eta orretarako saltzen da. Azeri-arraiña ez da fidagarria. Gauza asko esan dira giza-iruntzaille diran onei buruz, ez dana sinistu, baiña ez larregi eurakana urreratu.

Arrain-motarik arrotzenak urrutiko sortaldean dagoz eta krisaullutzat naiz umeen jostaillutzat erabilten dabez, Ejipto'n esaterako: Diodon edo aginbikoa, tetraodon edo lau aginduna. Puztu ezker zarata bat ateraten dabe eta ur-gaiñean gelditzen dira borobillaren antzera.

Eta illar-arraiñak erdiz erdi 2 m. ditu eta milla kilotik gora da bere aztura.

Eta txori-arraiñak, ikusgarriak.

Arrain batzuk euren bular-belarriak beso txiki biurtzen dabez eta beso oneikaz aurkitzen dabe ibilbidea, ur-bazterreko ondartzan. Buru-gaiñean daukezan begiakaz alde guztietara begiratu leikee.

Murloiña itxas-barruan ibiltzen da eta ateraten dabenean zarata bat egiten dau.

Itxas-barrenean arrigarriak dira arraiñen margoak eta izaerak, bakoitxak bere argia daroa eta euren bizileku diran baratz ederrak argitzen dabez.

Uretan dabiltean arrain guztien artean azkarrena txitxi-espata deritxona da. Musturra ezpata-antzekoa dauka, 6 m. luze, eta ordu baten 96 km egin leikez.

Tarpon izena daroan arraiñak 4m. luze ditu eta burrukalari gogorra da, batez be arrantzaleak arrapatzen dauanean; batean jauzi, bestean uretatik urten, bestean uretara sartu eta urrin agertu... Egun osoa irauñ leike burruka gogor onek. Zearo ler egiten dauanean amaituko da burruka. Tarpoi gizajoak galdu dau, baiña bere aragia ez da jateko ona.

Olazar'tar Martin'ek

ERROMATARRAK (K.A. 500-K.O. 475)

Tiber ibaiaren ondoko ibar baten azoka bat asi zan. Inguruko muiño ta tontorretan baserri asko agiri zan. Nekazariak lanaren lanez gallur arreik masti, solo eta larre biurtu ebezan. Ibar aretan izan eban asierea gero ospetsu izango zan Erroma aundiak.

Nork uste izango eban kazkar-erri aretatik edestiak munduan ezagutu dauan agiterririk aundiena sortuko zala! Inguruetan eta sarritan kaien ondoan ba-egoan a baiño leku egokiagoa ugari, egoaldera Grezia'ren kolonia izandako erriak, iparraldera etruriatarren uri arresitsuak. Azkenengo oneik izan ziran Erroma'ko erregeen mende egongo ziranak eta merkatari lez Grezia'gaz artu-emone-tan ebilten ziranak. Eurak izan ziran erromatar atxurdu-nak zurtu ebezanak eta grezitarren gogo-lantzea eta arte ekarri ebezanak.

Urteen bidear etruiar areik guda egin eta galdu eben erromatarraz eta onein mendera jausi ziran. Ortik asi zan goraka Erroma. Espatearen lagun izaten orrelantxe asi ziran eta inguruetakoko erri guztiak menperatu ebazan, banan-banan, eundaka urteetan, Italia osoaren jabe izate-ra eldu-arte.

Erromatarraz uri bat menperatzen ebenean aregaz bakeak egiten zituen eta eurakaz alkartzen ziran gudarako. Orrelan erroma asten eta sendotzen joian, Erroma bera eta bere gudarostea. Legeak be egin ebezan aundit-zen joian erriak bake-bidean aurrera jarraitu egian.

Gaiñetik erregeak eskari bizia eginda, Erroma geroago ta geiago zan bere buruaren jabe. Agintzen ebenak erriko aide nagusiak ziran. aundikiak, oneik erriari begi-ratzeko kontsulak aukeratzen ebezan eta kontsulen ingu-ruan senatore deritxen agureak eta senatoreen bazkuna izan zan lege-bazkuna.

Arlo txikietan nekazari ziran jente zeia ziran gudari izan bear ebenak, baiña gudari ebiltzala ezin landu lurra, eta gudaz nekatuta etxera etorten ziranean euren partike-rak utsik egozan eta durua billatzeko lurrak kendu egiten eutsoezan zerga-ordez.

Lur orreik aide nagusien esku geratzen ziran, erri-lur edo guk esaten dogunez, oilla-lur ziran, landu gabeko arlo aundiak. Eta aundikiak legeak egin ebezan lur oneik eurakanatzeko. Gaiñera euren morroiak lana egiten eben sari bagerik eta orrelan azokako sal-neurriak beeratzen ebezan eta nekazariak ondatu. Azkenean aberatsak aberatsago eta txiroak txiroago gertatu ziran Erroma'n.

Eta urietan bizi ziranak be ez eben zori obarik izan. Jostun, zurgin, maixu, argin eta abar... ez euken ogi-bide-rik, lantegi guztietako langilleak saribako morroiak zirala-ko. Talde aundian ebiltzazan, eskeko antzera, laterriak emongo eutsen ogizatiaren zain.


Baiña geroago, aberats batzuk geratu ziran eta morroi askori askatasuna emon jakon.

Agintaritza gitxi batzuren eskuetara jausi zan eta ez eben beste ezer billatzen eurai ondo jatorkena baiño. Aundiki-etxe bikaiñetan bizi ziran, loro-baratz ederren artean. Lana morroiak egiten eutsen eta morroiak ziran umeai eskolea doan emoten eutsenak.

Morroiak euren jolas-eragile eta euren alde burrukala-ri.

Txiroak, lan barik eta gosez, zirkukoikuskitzetara eroaten ebezan an espatariak izateko edo pizi ta espata-rien arteko burrukak ikusteko eta orrelan odol-burruken zale biurtu ziran.

Agintari areik ez eutsoen erriari emon ezelango aurre-rapiderik. Erroma ondamentirantza joian.



Gudari erromatarraz babespean.

Kartago uria egoan Afrika'ko itxas-aldean, eguzkitan egoan uri ederra. Ontzi aundiak kaietan ainguruak bota-ta, ondoan ontzi txikiak zabuka, kaleetan Lur-Arte itxa-soko kaietatik ekarrita pardel asko salgaiz beterik, ingu-ruan merkatariak barritsu eta izkuntza askotan berbetan, ezkutuan euleak lan eta lan.

Feniziarra zan Kartago, feniziarren urririk aundiena ta aberatsena. Frutuak, aleak, metalak eta olakoak erosi eta Kartago'n egiten ziran pillatzeak eta salgai oneik beste eroski batzuren truke emoten ebezan.

Orrelan aberatsu zan Kartago eta inguruko uriak azpi-ratu ebazan eta Erroma'ri be erasoak egiten asi. Eta Kar-tago'ko gudarostea mamutzar aundiak aurrean ebazala (elefanteak) Alpe mendiak bera jatsi zan Erromarantza. Anibal zan guda-buru. Auñamendi'tik igaro zan eta bidean gudari euskaldunak artu be bai eta Alpeetara igon eta Italia'ra jauzia egin eban. Bidean erromatarren guda-rozte guztiak azpiratu ebazan. Italian egin zituan amabost urteetan: etsaiak zapaldu, uriak artu, uztak batu, gari-kutxak betetu... Erri guztiak egozan bildurrez!

Baiña Erroma ez zan biozkatu. Anibal'en gudarostea-ri zilla ebagi eutson eta Anibal'ek Kartago'ra biuru-bea-

rra izan eban. Gero gudaldiak Kartago'n izan ziran. Kartago zapalduak Erroma'ri itzi bear izan eutsozan España'ko uriak eta etxeko ondasunak.

Gero Kartago'ri berari eraso eutsen Erroma'k: Jatekorik izan ez egien, bideak ebago eutsezan eta erromatar mutillak inguru guztia artu eban. Barruan goseak egingo eban bere egitekoa. Orrelan errez sartu ziran urira erromatarrak.

Barruan sekulako sarraskia egin eban: bizirik arrapatuak joputzat saldu, uriko etxe guztietan lapurretak egin, etxeak bota eta azkenean gatza erein geiago ezer gauza bizirik erne ez zeiten. Erroma'k benetakio gorrotoa eukan biotzean.

Erroma'k guda orretan galdu eban bere gaztedia, etxeak jausita eukezan, erri-jentea gose zan. Baiña kosteak kosta, guda irabazi eban eta mundu-alde onetan nagusi geratu zen Erroma.

Inguruan ziran errialdeak Kartago'n Erroma'k egin ebana ikusita, olako erri bategaz adiskide izatea obe zala erabagi eban eta errez sartu ziran Erroma'ren buztarripera.

Baiña guda egitea erabagi ebanak Erromak azpiratu ebazan eta Erromak printzeak ekarten ebazan katekaz lotuta garaipena ospatzeko azpiratuak erriaren aurrean lotuta agertzen zirala, eta azkenean Erromak eruen bizi eta ondasunak kentzen eutsezan.

Urrin bizi ziranak ez ziran ikaritzen Erroma'ren mepen egoteko, euren erregea galdu eta Erroma'ko agintaria artrzen eban eta Erromako gudariak lurralde arein barruan geratzen ziran. Bakea nai ba-eban, euren oituzkaze bakean bizi izaten izten eutsen Erroma'k.

Orrelan zabaldu zan erromatarren agiterria eta bere menpean eukazan Ejipto, eta Lur-Arte itxasotik India'ra artekoa dana, guda-zale ziran Kreta ta Grezia be bai.

Aginterrien eredu geratu da Erroma urrengo gizaaldientzat eta gaur be indarrean dago erromatarren legedia.

Lurralde guzti ori, ibilteko gurrpide edo kaltzadaz betarik itzi eban Erroma'k. Estrata orretatik ebiltzan merka-

riak eta gobernuko agintariak, eta, batez be, gudariak urratu zan bakea konpontzera joaten ziranean. Bake orretan bizi ziran milloika gizaki.

India'k eta Txina'k, an urrutian, ez eban Erromagaz asarrik izan eta inguru aretan merkatarien ekintzak aurrera jarraitu eban: Sedeak, espeziak, arri-bitxiak, edontzi fiñak, tapizak eta beste salgai karu asko saltzen ziran an.

Beste jokabide bat izan eban erromatarrak iparraldeko errialdeakaz, sakabanatuta bizi ziran galiarrakaz. Oneik lanean bizi ziran olezko etxeetan, lurra lantzen, abereak azten, ote orrelan euren buruak mantentzen; gorua arildu, euna egin, seme-alabak azi.

Gudarako latza zan galitarren erri ori, baiña Erroma'k gudaroste ohea eukan eta izkillu obeak. Leinurik leinur eraso eta Galia osoa menperatu eban Erroma'k.

Guda-gizaon orrein artetik urtena dogu Zesar, Galietako guda irabazi eban. Eta etxera etorri zanean, Erroma'ri berari eraso eta bera geratu zan nagusi, diktadore, baiña olako agintaritarik naiz ez-eta Brutus'ek erail egin eban senatuan.

Orain zelan bideratu Erroma'ko agintaritza? Iñork ez ekian gobernatzan, gitxik ekien irakurten... baiña prest egozan ondoen berba egiten ebanari eta jatekoak ta jolasak eskintzen ebazanari aginpidea emoteko.

Orrelan sortu zan gudalburuen burruka agintaritzara sartzeko eta Zesar'en illoba zan Kaisar Augustu'ko irabazi eban. Bosteun urtean agindu eban olako Zesar edo Kaiserrak. Geienak ez ekien agintzen, bai ostera arzurizko uguztegiak egiten, tresneri apaiñak gertatzen, esku-iztziak ziran liburuak egiten...

Azkenean, lur ezagun guztiaren jabe ziran erromatarrak be azkena eldu jaken, sortaldean bizi ziran basatien eskutik, tatariarren eta undarren eskutik. Eta iparraldean be baziran errialdeak ugari. Erroma beera ta beera dota eta mundu barri bat asi da sortzen Europa osoan.

Gogoratu daiguzan gaurko laterriak sortu dabezan erialde batzuk. Eslaboak, godoak, bandaloak, sueboak, eruloak, saioiak, angloak, frankoak... eta erromatarren naiz erri barri onein denporan, or daukagu Auñamendi-inguruan naikoa isilik, gure Euskalerrria.

Olazar'tar Martin'ek

AFRIKA: MUNDUKO GIZONIK AUNDIENAK

Munduko gizonik txikiak diran pigmeoen ondoan bizi dira aundienak diran watusiak, geianak metro bitik gorakoak. Emakumeak asko txikiagoak.

Zergaitik ain luzeak? Nondik etorriak? Ez dakigu. Beso eta anka luzeak daukez, baiña gorputza meea. Azalez baltzak dira baiña ez oso baltzak.

Lurgintzan eta abere-azkuntzan egiten dabe lan, baiña lanik geiena menpean daukezan bakutuak egiten dabe.

Adar luzedun beiak daukez baiña oneik iltea debekatu-ta dauke eta orrelan abereak asko ugaritzen dira. Euren-

tzat larreak billatu bear!

Munduko saltzailerik onenak dira.

Jauzi aundiak egiten be onak dira baiña ez dira urrertzen olinpo-jokoetara, emen jokalaria ez dabelako onartzen euren jauzi egiteko erea.

Oso dantzariak dira eta dantzarako jazki politak artzen dabez, orkatilletan txiliñak dabezela. Buruan, ostera, apaingarri luzeak.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKAL DEKLINABIDEA

Bizkaierako erakusleetako batzuk onelan esaten dituz: Nominatiboan, *ori polita da*, *órrek politikak dira*, *orrék zapaldu dau*, *órrek zapaldu dabe*, etabar. *Ori*, amaierako *-k* barik, aditz iragangaitza edo “intransitiboa” danean erabilten da ta nominatibo “**pasiboa**” deitzen joko. *Orrék*, ostera, amaierako *-k*-gaz, aditz iragankorra edo “transitiboa” danean eta nominatibo “**aktiboa**” da. Beste aldetik, *órrek*, azentua *ó*- izkian daroala, bai plural pasiboa ta bai ta be plural aktiboa adierazten dau. Genitiboak : *orrén*, singularra, *órren*, plurala, ta datiboak, *orréi*, singularra, *órrei*, plurala, azentuak tokiz aldatuaz. Badagoz beste aldaera batzuk be, baiña ez dogu geiago luzatuko.

Lapurdiko erri askotan beste era baten esaten dituez adibide berberak: *hori*, *hoikiek*, pasiboak, *horrek*, *hoikiek*, aktiboak. Genitiboak, *horren* eta *hoikien* eta datiboak, *horri* ta *hoikiei*. Argi dago bizkaierako pluraletan (eta gipuzkerakoak be bai) *-k* bakarra agertzen dala nominatiboaren amaieran eta lapurteraz *-k* bi. Onelan da bere jatorria: nominatiboko *hoi-k* (*k* pluraleko markatza arturik) + bigarren *k* (nominatibo *aktibo*-ko markatza arturik), *hoik* + *k* > *hoikiek* ataraten da. Genitiboa : nominatiboko *hoi-k* (*k* pluralagaz) + *en*, genitiboko marka, *hoik* + *en* > *hoikien*. Datiboa: nominatiboko *hoi-k* (*k* pluralagaz) + *i*, datibo marka, *hoik* + *i* > *hoikiei*. Zeintzuk dira jatorrenak? Ara zer onartzen eben autore batzuek.

Bon: aurkitu zituzten *arriak-ek*, ‘arriek’, *arriak-en* ‘arrien’, *arriak-i* ‘arriei’

Van Eys-ek: *haukek*, *horriek*, *hekiek*. Eta Biz. *areek*, *ar* + *k* + *k* > *arekek*-tik datorrela

Schuchardt: *har-k* eta *hare-k* > *haek* > *hek* + *k* > *hek-ek*

Azku: *gizonak etorri dira* (pasiboa) baiña *gizonak* + *k* aktiboa > *gizonak-ek* ekarri dabe.

Uhlenbeck: Iberotarren pluralak, nom. *-ke*, gen. *-ken*, dat. *-kei* (*keai*), Lapurdikoak onartzeko “iberotarren” laguntza komeni jake bardintsuak diralako.

A. Léon: Pluralizat artutako *-aga*-tik > *ag* > *ak* ta emendik *gizón-ak* (plurala) *etorri dira*.

B. Gavel: Léon-ei jarraituz *-agek* > *akek* > *-aek* > *ek*. Genit. *-agen* > *-aken*, dat. *-agi* > *-aki*

A. Irigoyen: *haug-en* > *hauen* eta antzekoak Léon-en “modari” jarraituz.

K. Rotaetxe: *gixonag-ren* > *gixonageren* > *gixonaeen*, e.a., aurrekoei kopiatuz.

P. Goenaga, *haueg* + *k* > *hauek*, *horige* + *k* > *horiek*, *haieg* + *k* > *haiek*

Mitxelena ez egoan ados Léon-ek esaten eban *-aga* orrek ugaritasuna edo pluralaren esangura ebala. Azku-k be esaten ebala *-aga*-n ez dagola ugaritasunik. Adibidez, *Arespakotxaga* izenak, *bakoitz* > *bakotx* + *aga*-z ornituta, “*bakarra*” esan gura dau ta *-aga* ezin izan plurala.

P. Altuna/M. Azkarate: Léon-ei ta Gavel-ei jarraituz, *-aga*-tik datorrela plurala era onetan : **agek* > **aek* > *-ak/-ek* ; **agi* > **ai* > *-ei* ; **agen* > **aeen* > *-en*. Ez sinestekoa.

Aitatutako idazleetatik iñork ez dau ez bizkaiera ez gipuzkera konparatzen zerrendan bizkaitarrak eta gipuzkoarrak izan arren. Betiko ganoragabekeria. Lapurdiko formak badira, ondo dagoz, eta ez da Biz. eta Gip. aztertu bear. Au ez da Lab. euskalkiaren errua, idazleena baizik, %90 erabilten dituzten formak baztarteagaitik, beste barik. Lapurterak, beste euskalkiak legez, bere gauza onak eta ez ain onak daukaz. Jakintsuak bereizi bear dituez gauza onak eta txarrak.

Denpora zarretan dana zan mugagabea edo “indefinito” orduan ez egoalako “artikulorik” singularra ta plurala

bereizteko: *gizon bat* eta *gizon asko*. Ez egoan pluraleko markarik ez zalako bear. Orduko *k* bakarra sujeto *pasiboa* ta *aktiboa* bereizteko zan: *ori polita da* ala *orré-k zapaldu dau*. Beste sujeto *aktibo* batzuk : *neur-k*, *eur-k*, *geur-k*, *zeur-k*, *beur-k*, *one-k*, *orre-k*, *ar-k/aré-k*, *neurone-k*, *eurorre-k*, *geurone-k*, *zeurorre-k*, *beurone-k*, *beurorre-k*. Rijk jaunak ipinten zitxuzen : *nor-k*, *zer-k*, *asko-k*, *gutxi-k*.

Gero, erakusleetatik artikuloak sortu ziran : *gizon a*, ‘aquél hombre’ > *gizon-a* ‘el hombre’ singularra, eta *gizon árek* ‘aquellos hombres’ > *gizón-(ar)ek* ‘los hombres’ plurala. Genitiboak, ostera, *gizon-aren* eta *gizon-(ar)en*, eta datiboak, *gizon-ari* ta *gizon-(ar)ei*, mugagabea edo “indefinito”-tik abiatuak, iñolako *k*-rik bear barik. Batzuk diño 1000 urte dirala artikuloak sortu ziralak. Gukutzen dogu urte asko geiago dirala. Dana dala, erakusleak aldazten joan ziran izenak obeto mugatzen laguntzeko ta lortu ebenean singularra ta plurala bereiztea, preparatuta egoazan artikuloen zeregiñak betetzeko. Ikusi daiguzan bizkaierako erakusleen aldaketak:

	pasiboa	aktiboa	pasiboa	aktiboa	pasiboa	aktiboa
	<i>au(ni)</i>		<i>auri</i>			
Sing.	<i>au</i>	<i>oné-k</i>	<i>ori</i>	<i>orré-k</i>	<i>a(r)</i>	<i>a(r)-k/aré-k</i>
Plural	<i>óne-k</i>	<i>óne-k</i>	<i>óre-k</i>	<i>óre-k</i>	<i>áre-k</i>	<i>áre-k</i>

2005N. URTEKO EKINTZAK

(ITZALDIA: 2006-02-23)

Adiskide ta lankideok:

Urte guztietan lez, pozik alkartzen gara geure Batzar Nagusia egiteko eta aurten, bear ba'da, pozago, ekintza geiago eta obeak aurkitzen doguzelako. Baiña aztertu daiguzan banan-banan urte guztietan lez.

10 puntutan azalduko dautsuet gaia.

1.-ILLEROKO BATZARRAK

Illero, gitxi gorabera, egin doguz batzarrak eta ez dogu aitzu bear batzar oneitan dagoala oiñarria ekintzak ugari eta onak izan daitezen.

Arazo aundi barik egin doguz illeroko batzar oneik, Paul Atutxa'ren Batzar-Agiritan ikusi daiteken elez

2.-IRAKASKINTZA

Auxe izan zan gure alkartearen lenengo elburua asieratik eta bete be ondo bete dogu, baiña asieran, euskerea ikasteko aukera gitxi izan zalako, asko ziran ikasleak. Aspaldion ikastaroak ugeritu egin dira eta gure ikasleak urritu. Batzuk ikasi dabelako, beste batzuk, bear ba'da, aspertu egin diralako.

Dana dala, aurten igaz baiño lau ikasle geiago izan doguz, igaz 24 eta aurten 28.

Ikasleak pozik diardue, alde batetik ikasten dabelako eta bestetik emen euskal-giro gozatsua aurkitzen dabelako.

Ez jaku peitzen jarraitzeko gogoia eta jarraitu egingo dogu.

3.-"ZER" ALDIZKARIA

Illero agertu da gure aldizkaria, bizkaieraz idazten dan bakarra, naizta idazlan gitxi batzuk gipuzkoeraz agertu, alkartasuna lortzeko eta geure bideko idazleak batzeko.

Idazle barri bat asi jaku oraintsu idazten, Iker J. Laka Guenaga, erderaz idazten dau, baiña gaia euskerea bera da, izen-ordeak aztertzen dauz eta orretan oso jakituna da. Euskeraz be idazten dau eta pozik gagoz beragaz.

Arpidedunak apur bat gitxitu dira baiña 1200 ale ateraten eta zabaltzen dira.

Erri txikietan ordaiña eskuratzea izaten dogu arazoa, Bilbao lan ori nork egin ba-daukagulako, baiña errietan ez.

Idazleen urritasunik ez dogu nabaritzen. Errez beteten da aldizkaria.

4.-IPUIN-SARIKETA

Aurten be egin da Bilbao'ko Udal-Batzak emoten daukun laguntza orretarako be sartzen dala.

Aurten sarituak izan diran bostak oneik izan dira: 1ª Josemaria Murua Goñi. 2ª Palmi Merino. 3ª Asier Legarre-

ta. 4ª Gotzon Egaña (Oxintxu). 5ª Ziortza Arrien Orbe.

Ipuin sarigarriak izan dira eta ZER'en agertuko dira.

5.-EUSKAL ASTEA

Urtero lez ospatu dogu aurten be eta oneik izan dira izlariak eta gaiak: Astelenean Bertsolaritzari jarraitu dautso Asier Legarreta'k. Martitzenean Paul Atutxa'k Euskal-lerria Europa'n gaiaren lenengo zatia azaldu eban. Eguas-tenean itzaldi au egiten dagoanak itz egin eban H'aren arazoa labur azalduz. Eguenean Josemari Murua'k eskuartearen erabilli dauan Kardaberaz/Euskerazaintza arazoa argitu eban eta barikuan barriro Paul Atutxa'k bigarren zatia.

Entzuleak ogei-inguruan ibilli dira, eta ez dira ain gitxi, baiña zabalkunde geiago egin bear dogu. Esaterako DEIA'n eta Bizkaia Irratian.

6.-EGUTEGI-TAKOA

Gure egutegi maitatua igaz ezin atera izan dogu, azkenengo orduan bbk'k laguntza ukatu euskulako, baiña aurten Foru-Aldundian aurkitu dogu laguntza eta atera al izan dogu 25n. urtekoa. Urrengoa be aterateko ustean gagoz.

Jenteak pozik artzen dau egutegitxu au eguneroko irakurgaitxua eukiteko eta Durango'ko Azoka'n amaitu egiten zan eta sarritan eroan bear izan gendun. Gero Iñaki Egurrola'k egiten dauan lan ederrari esker, erri guztietara, aundienetara beintzat, zabaltzen dogu.

Urrengo urterako Internet'era be sartuko dogu eta dagokion egunean beti egon daiten, egunero igaroko da orritxua berez.

7.-ETXEA

Ba-daukaguz arazoak etxe onegaz, konponketak egiteko eskariak aundiak diralako, baiña orain-artean erantzun al izan da.

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LAGUNTZA JASO DAU

Arazo au argiago azaltzen dausku orretarako arduratuta dagoan Kamele'k.

8.-EUSKERAZAINTZA

Tolosa'ko aretoa saldu zan ezkerero, Euskerazaintza'k ez dauka Gipuzkoan lan-lekurik eta batzarrak, agiritegia eta dana etxe onetan eukiko dogu.

Geroago ta alkartuago jokatzen dogu Euskerazaintzagaz. Eta gure bazkide batzuk be, gurea itzi barik, Euskerazaintzara be sartu dira, lana batera egiteko.

9.-INTERNET

Bazkideen artean Internet- arloan oso jakituna dan Ana Uriarte daukagu aspaldion. Oso langillea eta eragiña da.

Ana'k ZER aldizkaria zati on bat sartu dau Internet'era eta peitzen diranak be sartuko dauz. Liburu batzuk be bai. Oraingo 2000 izan dira gure arlo au ikertu dabena. Pozik egoteko gauzea da.

Esan dogun lez, egutegi-takoa be orra sartuko da urtero.

10.-ESKERRAK

Lana doan egin arren, tresnak be bear izaten dira eta guztiok be bizi egin bear dogu. Orregaitik diru-laguntza bear izaten da. Nondik etorten dan?

Lenengo arpidetuen sariak.

Bilbao'ko Foru-Akldundiak era bitara emoten dausku, bai ZER argitaratzeko eta bai geure ekintzetarako.

Bilbao'ko Udal-Batza be laguntzaille dogu eta asko poztuten gaitu.

bbk'k be iragarkia ondo ordaintzen dau.

Ba-dira geiago be laguntzailleak eta egun onetan biotz.biotzez esker ona agertzen dautsegu. Gure bizkaierak ba-dauko laguntzaren bear-izana!

Eta zelako laguntza dogun doan ainbat idaz-lan bialtzen daben irakurleena!

Eskerrik asko guztioi!

OLAZAR'tar Martin

EUSKERAZALEAK'EN LENDAKARIAK

(6n. orrialdetik dator)

EUSKAL DEKLINABIDEA

Bizkaieraz, singularra ta plurala azentuaren toki aldaketaren bitartez bereizten dira. Usten dogu au dala era jatorrena ta zarrena. Amen gertatu da *óné-k*, singularrak, *k aktiboa*-gaz, azentua aldatuta, *óne-k* plurala egiten dabela. Gero *k* orrék plural itxura artu badau be kasu batzutan, begi bistan dago jatorriz *k aktiboa* dala. Ez da iñoiz pluraleko marka berezirik izan. Ikusten dogu *b*, lapurteran izan dan aldaketa okerra dala, bigarren *k* markarik ez egoalako, jatorrian, pluarala adierazteko.

Len aitatutako idazleak, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak batez be, Iparraldeko teoria okerrari jaramon guztia egin barik, aztertu baeben %90 euskaldunek darabilten erakusleak, ez eben orrelako akats itxusirik egingo, baiña, bestetan lez, beti Iparraldera begira norbereari bizkarra emonaz.

Euskera baturako erakusleak aztertu ta aukeratze-ko, Euskaltzaindiak batzorde bat prestatu eban P. Altuna buru zala ta Txillardegi ta Kintana laguntzailleak P. Altunak esaten da "Euskera" aldizkarian (1978-2) sei idazle artu zituzela aztertze-ko: Etxepare, Axular, Oihenart, Leizarraga, Larramendi eta Lardizabal. Azken biok gipuzkoarrak baiña bizkaitarrik batik be ez, Bizkaia Txinako lurraldea balitz lez. Edozelan be, Iparraldeko lau idazleentzat bederatzi orrialde eskeintzen dituz, baiña gipuzkoar bientzat orrialde bakarra. Esan bearrik ez dago ez dabela aiatu be egiten Bizkaiko eta Gipuzkoako erriak zelako erakusleak darabilten. Gauza onik atara leike orrelako joko arrarotik? Burla galanta bizkaierari, ta kasu onetan gipuzkerari be bai. Gaiñera euskera batua osatzeko egoazan araso sakonak ondo erabakitze-ko joko egokia da ori bizkaiera bazturturik?

Iker Joseba Laka Guenaga

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

EUSKERA ALDIEN BARRUAN

XV'n. gizaldian gaituzte. Euskalerrria'n 1489'gnean. irarkolak egiten digu sarrera. Baiñan XVI gizaldirarte itxon bearko du euskerak bere burua irar-izkietan azaltzeko. Ordurarte iñork ez bai-zekien euskeraz (idatzi), letra bidez alegia, ezer adierazi zitekeanik.

Beñat Etxepare izen-abizendun Benaparroa'ko apaiz batek, bere biotzak eta euskaltzaletasunak eragiñik euskera idatziari 1545 gn. urtean bidea ulerki-liburuxka argitaratuz, "Lingua vasconum primitiae" 52 orrialdeko olerki-liburuxka argitaratuz, euskerarentzat abiapuntu izango zana eta euskaldunentzat zuzi. Euskeraren goresle izan zanaren argitalpen onek etzigan ortzailerik erakarri, agian Trento'ko Kontzilio ertsiak liburua aitzakiz gordintso etsiz, salbiderik eman etziolako. Etxepare'k idaz-zurrumuru apal onen bitartez bide berria euskerari urratzen asi zitzaio-la konturatuz kanta alai egin zion maixuki: "Euskerea, jalgi adi plazara! Abil mundu guzira!". Mezuaren edukiz euskeraren bizia bermatu nairik kultur-trukeen aro ontan.

Gizamende ta belaunaldiak alkargainka dakarzkite aldaketak bizieran, izkurtzetan eta auen adar diran izkelgitan, jaurrieran eta erlijiojokeran, bai Euskalerrria'n eta bai milla printzerriz, dukerriz, jauntxoerriz, gotorlekuz eta jaurerriz zipristindutako Europa osoan. Kirstautasunaren sarrera eta errotzea gertakunik garrantzitsuenetakoa da Europa osoan, erlijio berriak ikusmolde berriak ekarri baitzitan gizartearen antolaketan, errien alkarranteko arremantetan eta abarrean. Kultur-eite berriak sortaraziz urteen joanean alor guzitan sentiarazten da, ertilanetan, margo-kintzan, elertian kristau-joka era, sarri politikatsuegia Europa'ko errietan. Eta nola ez, Euskalerrria'n ere naiz-eta erlijio-ekarle arrotzentzat euskera langa izan. Izan ere, erri erasotzaileen eta gaintzaileen erlijio bezelatsu joa izaneko kristasutasuna, denboraz oiñarrikkoa izatera elduko da aren eragiña euskal erakunde ta bizibidean ikusiko dugunez, erkideen artean fedea gero ta sakonago errotu bait-zan.

Erdi-aroa dugu izkuntz arazo piztuberrien ordua. Egoko lau euskal erkior politikazko alkarren loturarik gabe ere, iparraldekin, barnez il nai utziz euskal familieren elkarpenak estatu bateratu bat izateari eramango gaitulakoan alegiñetan ari gera gau. Len ordea Kastilla'ko koroirari atxikiegiak, politika-kontzientzia aulagatik-edo etziran jabetu euskal nazio-izatearen funts-erroa izkuntzan zetzala, euskera zala giltzarri beregaintasun osoko Erri jareiz bezela irauteko. Au, gure erabateko idetasun-zantzua!

Erriaren aots au jasotzeko Naparroa zan egokienik zegoana euskerari bultzakada sendoa emateko estatu nazionala biurtuz, baiñan naiz-eta bere "lingua navarrorum" ua sustrai ta zutabe duala jakin, sorario jokatzuz gaztelera artu zigun izkuntz ofizialtzat, oraindik garatu gabeko zetzan euskera bazterturik.

XVI'garremeam Europa'ko erri txikiak, iraunkorki elkaturik gelditzeko eta izkilluz joka zetozen besteengandik defendatzeko, era berriko Estadu biurtzen ari dira izkuntzari begira batez ere. Eta latin pitzatu edo endeka tutik enbor bateko muskil antzera sortzen ari dan gaztelera-izkelgi baldar eta landugabea, txukuntzeari eta lantzeari ekiten diote. Zentzu politikuz eta arduraz diardu Kastilla'k eta denboraz elerti-lan ederrak sortzen dizkigu. Gaiñera an-emengo guda-garaipenez eta itsandiko lurberrien arkikunde erri-mailla betea lortzen du, gaztelera eliz eta gudarien bitartez arrakastatu edaturik. Gaztelerearekin batera prantzera ere orduantxe asten da indarberriz zuzperten.

Euskalerrri'ra Gaztela'tik datorren eragin indartsu ta eztenkorra oso nabarmena da, euskerarentzat guztiz kaltegarri. Ebro'tik berako idaz-agiri guztiak, len latiñez bezela Ertaroan gaztelera bait-datoz. Kulturalki gu euskaldunok espagnolizatze satorkeriz alegindu zitzaizkigun gaztelar errege guztiak. Emendik ba onen ondorio txarrak euskaldunentzat. Erdal-kulturaren eraginpean, gaztelera ikastera bearturik ezia, Euskalerrria'k-izkera jardunean eta adiurre ta sentipenez guztiz bestelako, zearo euskaldun izanarren - Gaztelako instituzio artean mugitzen, aren izkuntza jakitera makurrerazten ditu erri xearen gaiñetiko gizarte-maillak eta kargudunak.

Irdal-ardatz onen biran dabil guztia. Gure arteko goi-mailla eratzen duten oiek, Kastilla'ren goresle, euskal erri xearentzat "zaunka utsa" zeritzaien euskera trakets, landugabe izoztean utzirik, erdeiñuz arbuaturik, erdera "dotoreari" eltzen diote.

Eukitsuak, andiki eta andiustekoak Gaztela'n dute begimena jarrita, bertako gorte-dotoretasunak lilluraturik an da auen miresmena Kastilla'ko ondasun-errape narotik zintzilik, edoskiz bizi nai dute. Aberaspidea zaie elburu, Euskalerrri txiro, txiki ta estuak ez bait-die goresgarrik ezer eskeintzen. Idealismo izpirik gabe ta Kastilla'renganako morroi-animaz, abarkarik gabeko jauntxo-mailla ongi jantzia ikutu nairik, mertzenari edo soldatari gisa Kastilla'ren (diruaren) zerbitzuan jartzen dira. Eta or ibilliko zaizkigu batuk gudaritzan munduan barrena, beste batzuk mariñeltzan txarratelak, tituluak eta urrezko domiñak irabazten eta beste asko idazkari bezela edo-ta errege-mirabetzan makurkerizko eskuluzaketan. Auek dira gure jatorrizko kultura saldu zigutenak.

Politikak eta politikariak etzigitzen euskeraren alde ezer egin. Eta zer egin zigun urteen joanean instituziorik gaillenduena zan Elizak?

Ara, gauza bat da elizgizon banaka batzuen jokaera zintzoa eta bestea Eliza erakunde bezela. Eta au ondo dakigunez, gaur arte, deitoragarria izan dugu onen jokae-ra jauntxoen gurdiari neurritz gora ibillia eta erabillia. Eta onekin dana esanik daukagu.

Euskeraren alde jokatzeko en omen da Elizaren jokabidea. Egia! Eta aurka egitea bai? Eta ondo dakigu Elizaren agindupeko apaizen zabarkeriagatik ondatu eta saldu zai-gula tokialde kultura bikoiztu nairik eta apurtzeko gero. Ikastokietatik etzetozen batere gerturik apaizkumeak gure errixaetan euskeraz erakusteko. Eta goi-maillako elizjerariak, politikaren serbitzariak beti, gutxiago. Ba al da gotzai euskaldunik Euskalerrri'an?

Amaseigarren gizaldian, Joxe Azurmendi'ren esanez, oso bakar bat ikusten da gotzai-aulkian, eta gaiñera zorionez euskaldunki jokatzeko, Diaz de Luko arabarra, Kalagurri'ko gotzaia. Euskaldun fededunak euskeraz ezitzeko onek eman zuan lenengo agindua, ordurarteko euskal apaiz eta lekaideak kultur-gizon bezela aintzakotzat nunnai artuak, erdal kultura betean azi ta eziak ez bait-zuten euren predikuak euskeraz egin nai izaten. Eta elizaren izkuntza latina zanez, erdera kultuaren premia adieraziz latin-erdera-euskera mordoilloan egiten zioten apaizak elizaratzen zan euskera besterik etzekien jendeari. Eta oso berandu arte ere ez da dotriñarik euskeraz irakatsi, oso tantaka gaiñera.

Euskaldunok etzizun antziñatean bere izena bizitoki onek daukanetik artu, ez-eta bere abendatik ez-eta bere jite ta zantzu fisiku naiz moraletik IZKUNTZATIK baizik. Orregatik gu euskeradun Erri gera.

Edestia, zoritxarrez etzaigu euskaldunoi ikasketa bate-re atsegiña izan. Mutu izan gera, aktore mutu artukizun izan dugun gertaera aundi guzitan eta besteen ardurapean utzi izan dugu gertaera guzti oien edesketa. Eta emendik ba gure kaltean idatzitakoak. Nun-niko kronikariak egiazki konta ez digutena edo-ta ixildu naiz aldrebeztu digutena egi-bidera ekartzen ba'dugu nun lan egiña.

Erri txiki izanarren, sarri arantz zulakorra izan gera auzoko erri arro ta menperatzaillentzat. Ta erosi nai izan gaituzte loxintzaz batez ere, Europa'ko erririk zarrenetako gerla, beregainzale purrukatuak gerla t.a. Alperrik. Guk gurean jarraituko dugu, Txilista platerkada ospatsu aren truke bezela salgai ote gaude? Ez! Ontarako ez dago gu geu izanez baino mundutar guztien senide izateko modu oberik.

Egaña'tar Gotzon

AFRIKA: LEOI-EIZTARIAK

Kenia'ko masaitarrak gudari arroak eta eiztari trebe ta ausartak dira. Espata labur naiz aitzo luzeak ilten dabez leoiak.

Aberedunak dira, baiña ez dabe jaten aragirik. Artoagaz eta esneagaz nastauta abereen odola artzen dabe janari.

Aurpegia gorritz margotzen dabe eta ule-moltzo aundiak erabilten dabez buztin gorritz estalduta. Burua eta gatxean apaintzen dabe leoiaren uleagaz eta abestruzaren lumakaz. Emakumeak iduneakoak, eskutorrekoak eta arrakada astunak erabilten dabez.

Euren esaldia da "iru gizon-mota dagoz munduan, europarrak, Afrikarrak eta gu" Leoi-eizara joan-aurrerik, dantza itsu eta eroa egiten dabe egun bat edo bitan, indarra artzeko eta idi-odola edaten dabe.

Leoia ikusten dabenean, 15 edo 20 eiztari inguratzen jakoz, batek buztanetik tiratu eta besteak ezpatea sartu. Gero leoiaren uleagaz apaintzen dira eta itzal aundiko biurtu.

ZULUTARRAK

Orain eun urte zulutarrak ziran bildurgarrienak. Burruea zan euren bizibidea eta erlejiñoa. Beste leiñuaitz oztuten eutseenagaz bizi ziran. Boers'ak izan ziran euren menepertzaillak.

Errez oitu zurien oituretara eta kristiñau biurtu ondoren, artzain-lana ikasi eben. Gaur baketsu bizi dira euren erri ta baserrietan lan eginda.

Baiña ba-daukez gaur be antxiñakoen oiturak gaurkoakaz egokiro nastauta.

Gudari lez gaur be aurpegia margotzen dabe eta lumaz apaintzen dira, gazteak burruka-dantzak egiten dabez, millaka, baiñ lengo erri-dantza gorrototsuak gaur eleiz-dantza biurtu dira.

Gaur onelan agertzen dira Natal uriko zuluak: Soñeko apaiñak, idibuztan eta suge-narruzko apaingarriak, idi-adar okerrak, buruan, lumazko txapela, belaunetik beera anak zuriz margotuta; jauzi aundiak egiten ikusten dira.

SORGINKERIA

Afrika beti izan da aztien edo magoen lurra eta majia da ango jakituria, ango osasuna eta, onerako naiz txarrerako, bizitzan orrek izan dau indarrik aundiena: Aztikeriak osatu, aztikeriak il eta aztikeriak ekarri zoriona naiz txarra.

Afrikarrentzat mundua iñork uler-tu ezin leikezan indarren menpean dago. Uzta txarrak, abereak iltea, ezbeurrak, dana, espiritu gaiztoen lana da. Aztia eta sendagilea danak, osagai ona gertatzen dauenean, gaizkiña azpiratu egin da. Legortea etortea leiñuari goitik datorkion zigorra da.

Batzutan oillasko edo auntz bat ilda jakiten da ori, baiña gaizkiña gogorra danean, gizon bat il bear jako. Ilte ori ona da, leiñuaren onerakio dalako.

Aztia da leiñuko gizonik indartsuena eta senda-bedarrakaz mirariak egiten daki. Aztikeri zuriak sendatu eta baltzak kaltegu egien dau.

Olazar'tar Martin'ek

NEKANE

(2N. SARIA)

Sekulako lekutan egoan Nekane etxetik joan zan eguna! Bere aitaren izaera latza eta amaren ixiltasuna jasanezinak egin jakozan eta, amazortzi urteak bete ebazanerako, etxetik alde egin eban.

Naiz eta Sabinoren izakera ondo ezagutu, Martinak ezin eban aita-alabaren arteko gudaketa ulertu. Nekane, berezia izan arren alaba ona izaten zan; ikasle ona, biotz-onekoa, garbi eta alaia... Azken au pentsatzean oker ebilela konturatu zan. Azkenez Nekane aldarte ezbarriñaz ikusi eban, batez-ere bere oiturak. Amasei urte egin-arte bere gustuko jantziak soineko eta gona koloretsu eta liraiñak ziran, takodun oñetakoak, ule luze eta kizkurtua... Egun batetik bestera eta azalpenik barik, izaera ez ezik bere jantzikera eta oiturak be aldatu ebazan. Beti prakak erabilten, goiko jantzi illunak eta tamalgarriena, beti goibel, igeskorra, ixilkoia. Orreen ondorioz be aitagaz ebazan eztabaidak gero ta sakonagoak ziran.

Martinarentzako txarrena, guzti ori ixilpean sufritu bear ebala zan. Bein batean eztabaidan eskua sartu guraz gizonak indarkeria erabilli eban ama-alabakaz. Orregaitik Nekanek amari eskua sartzea debekatu eutson.

Aitagaz bizkidetasuna Nekaneri eziña egin jakonez gero etxetik alde egitea erabagi eban. Martinarenes onespenaz eta sabinoren ajolakabeaz etxetik urrutira joan zan.

Aitaren iletarako ere, ez zan etxera etorr. Idazkitxo bat baino ez jakon eldu Martina gizajoari asko maite ebala esaten.

Libe, bere gizonaren arrebari ezker, ez zan bakar-bakarririk aurkitu. Berak lagundu eutson Sabino gaixotu zanetik. Euren artean, alkar ezagutu orduko, sentipen berezia sortu zan, gizonondokoaren samintasuna, samurtasun biurtuz.

Sabino il ostean eta bakarrean ez bizitzeko, alkarregaz

zoriontasunean bizi ziran baina zoritxarrez, Libe ere, urte pare bat geroago joan jakon bakardade osoan itzirik. A bai bakardadea!

Guzti au etorkon burua gure Martinari, Nekanerengandik eldutako gutuna irakurtzen egoan bitartean. Ezin eban sinistu, luzaroan alabaren barririk ez, eta orain, amabi urte geroago etxera itxultzeko baimena eskatu, bere familiagaz etorteko.

Poz-ikaraz artu ebazan Martinak alabaren barriak. Zinak eta minak ikusi ebazan bere alaba bakarra joan jakonetik, eta orain, Jainko maitea! Alaba ez ezik, bere sendia ere besarkatzeko aukera!

Goiz-goizetik altxatu zan egun zoriontsu arretan. Etxea txukundu, soinekorik politenak jantzi eta sukaldetik -atartera joan-etorriak gelditu ezinik.

Egurdiko amabietan eldu zan kotxea. Leenengo ikusi ebana, Nekaneren ule gorrixka zan, ostean, neska eder bat umetxo bategaz besoetan. Bion ulea eta begiak, ikatza bizen baltza eta dizdiratsua. Nekanek maitekiro andreari eskua luzatuz lagundu eutson urtetan. Martinak orduan ondo ulertu eban guztia.

Nekanek, amaren begirada samurra ikustean, besoak luzatuz, esan eutson:

– Luzaro egon naz munduko beste aldean. Andik, Txinatik dakartsut nire familia, zuenenan onartzen bagaituzu betirako izan daiteke, ama.

Amak, unkiturik eta begiak malkotan:

– Etorri zaitze nire besoetara eta sartu gurean denbora geiago galdu barik, janaria prest dago, eta zuek gose izango zaire, ezta?

Palmi Merino

BIZKAIKO EUSKERA

Ene maite kuttuna
Bizkaiko euskera
ain ederra izaten
Eta bastertua
Zure seme leialak
Gero ta urriak
Aleginduko gara
Ez desagertzeaz
Gora erri izkera
Euskera bizia
Eta danon artean
Gora bizkaikoa

ENE AIZTATXOARI

Iluntasuna bear dot
Zutaz oroitzeko.
Bakardadea bear dot
Zure irudiaz gozatzeko.
Gabeko ixiltasuna,
Oroiemenaren laguntza,
Biotzeko taupadak,
Zurea izaera maitagarria.

Izandako umekeriak,
Zure irribarre gozoa,
Begirada ain samurrak.
Galdutako umetasuna,
Zure gaixoaldi luzea,
Gorputzaren aultasuna,
Zure azken agurra,
Sarritan oroitzen dot.

Palmi

DABID HUME (1711-1776)

Auxe dogu enpiristak edo zentzun-zaleak, geienak angland-errikoak, lortu eben filosofi-maillarik gorengoa lortu ebana, eta, ikusiko dogun lez, ez dago ain goi-maillan. Zentzunen bideak ez dau emon ondoren aundirik filosofiaren bidean. Gero, Kant aztertzen dogunean ikusiko dogu zelako alegiña egin eban filosofo onek olako mailla batera eltzeko, baiña Aristoteles'en antzeko bide batzuk artuta, ez zentzunen bidetik.

Hume filosofoa Edinburgo'n jaio zan eta bertan asi ebazan eskubide-arloko ikasketak, baiña oneik alboratu eta filosofia ta elertia ikastera sartu zan. Gero Frantze'ra ta London'era joan zan eta Europa'rik geiena ikertzeko aukerea be izan eban.

Adimena aztertzea da beronen lenengo elburua eta gero sartzan da oitura-iztia ta politika-arloa aztertzeo bizitzako gauzetara.

Jakituri guztiaren oiñarri beretzat giza-iztia edo antropologia da eta ortik jotan da zentzunen filosofia-ra, bere aldiko anglandarren antzera, bizi-ikasiaz eta azterketa egiteko. Baiña danaren elburua ez da besterik praktika baiño, dana da gizakien zoriona lortzeko bidea. Eta zoriona lortzeko gizakiak errazoiketa luzeak alboratu eta bizi-ikasi edo eksperientizatik bizi bear dau.

Artzen dauan zentzunen bideak ez dautso Hume'ri argitasun geiegirik emoten eta zalantzan, eszeptizismo osoan geratzen da.

Bere ustez, fisikak daukan besteko ziurtasuna daukan filosofia nai ba' dogu, ori lortzeko ez daukagu beste biderik bizi-ikasi edo eksperientziaren esparruan ibiltea baiño, zentzunetan aurkitu geinke olako ziurtasuna eta zentzunak izten daben gomutamen edo memorian, ez adimenean. Biziena zentzunak une beratan diñoana da, or sartzan dira irrikak eta biozkadak, baiña geratzen dan idea edo irudia ez da ain bizia eta ziurra.

Sentipenak bakoitxak bere nortasuna dauke, baiña irudimenak emoten dautse alkartasuna eta idea edo irudi biurtzen dauz eta ori egiteko, ideak alkartzeko, irudimenak iru bide artzen dauz: antzekoak izatea, alkarren ondoan egotea eta bata bestearen iturri izatea eta orrelan gure irudimeanak irudi edo idea korapillotsuak sortzen dauz.

Ideak, edo irudiak, berez banakakoak dira, esaterako lerroa, orrek irudi bat dauka.

Eta zer da Hume'rentzat kenketa edo abstrakziñoa? Ez da besterik idea edo irudi bat zentzunetara biurtzea baiño. Unibersalak izen utsak dira.

Filosofiak kontuan artu leiken irudimen utsa eta iza-tea bera zentzunetara daroana lenengoak dira eta or dagoz jeometria, aljebra ta matematikak. Eta orrei esaten jake izatezko arazoak. Eta oneitan baieztapen edo demostraziñoak egin leikez

Egillea-egiña (causa-efecto) zer-ikusia ez daugo lendik buruan, ez da a priori, ori be zentzunetatik datorren gauzea da, gauza bi orreik beti alkarren ondoan ikusten diralako, denporan bata beste baiño lenagokoa dalako eta beti alkarragaz doazelako sortzen da egille-egiña bikote ori. Gure ustez gauzea ez dau ondo argitzen, zeozer geiago da egille-egiña zer-ikusia.

Eta zelan eltzen da Hume norberaren buruaren ezau-gerara?

Gure aurreko mundua zentzunai or agertzen jake eta ortik jatorkuz zentzunen bidez ideak edo irudiak. Baiña zelan alkartzen da aurrean daukagun gauzea gure buruan sortu dan irudi edo ideagaz? Ori bizi-ikasiaz, eksperientziaz ikasi bear ko dau Hume'k. Eta ez Jainkoa ekarrita Deskartes'en antzera, orrelan oker ezagutzen doguzan gauzen errudun be Jainkoa litzakelako.

Kanpoko mundua baieztatzearen arazoak ez daua urtenbideriok diño Hume'k., geure barruko izakereak eskatzen daua esan bear gauzak or aurrean egotea.

Eta norbera zer da Hume'rentzat? Gure burua ez da besterik artu doguzan idea edo irudi guztien pilloa baiño, norbera izatea gure kontzientziaren asmakizuna da. Eta ideen alkartzetik sortzen da, antzekoak diralako, alkarren ondoan dagozelako eta bata bestearen iturri lez agertzen diralako.

Azkenean, norberaren izatea be zalantzan, eszeptizismoan, geratzen da, "Hume gizona eta Hume filosofoa" ez datoz batera. Gizona bizi da, berba egiten dau, beste antzera gauzak egiten dauz. Orrelan filosofi au zapuztuta geratzen da gizakien arazorik beiñenak argitzeko gai ez dalako.

Zer diño jokabideai edo moralari buruz Hume'k?

Ezagutzen-bidetik norbera ez da aurkitzen, baiña bai jokabidearen bidetik, gure irrikak eta gurariak aztertzen dogunzanean. Gure jokabide-arauak ez datoz burutik, ez datoz gure izakeratik, gure irrika eta egarrietatik baiño. Moralaren edo etikaren iturria atsegiña ta min eukitea dira. Onoimena atsegin jaku eta okerbidea samin dogu eta pozak edo saminak gidatzen dau gure jokabidea, orixe da moralala, buru argiak jokera guztien otsein izan bear dau. Sinpatia edo sentipen bardiñak dauka emen garrantzi aundia: Alkarren antzeko gizonak altruismo edo besteai laguntzera garoaz.

Naimena ez da almen bat, jokabide bat baiño ez da, gure barruan dago sentipen ori eta ez da sortu guk nai izan dogulako. Orduan askatasunik ez daukagu, askatasuna ez da besterik bata naiz bestea egin geinkela uste izatea baiño, baiña beti egiten dogu zerbaitek beartuta. Euki geinken askatasun-antzeko bakarra espontaneo, gura dogula, gauzea egitea da, baiña ez aukeratzeko almena.

Zer diño politikan?

Gizonak besteakaz alkartuta bizi izateko gurari bizia daukala diño eta bakartadea dala zigorrik txarrena gizkiarentzat. Berez berekoa izan arren, ba-dauka gizonak besteai laguntzeko guraria be. Ortik sortzen dira jaurlaritzak ona eta txarra zer diran esateko.

Eta erlejiñoan?

Antropolojia'ren barruan sartzen dau erlejiño-arazoa eta ez dau aztertu bear Jainkoa nor dan, gizakiak zelako erlejiño-jokerak daukazan baiño, eta orretarako bide bakarra bizi-ikasía, eksperimentua da. Orrelan erlejiñoa be folosofiarene barruan dago. Nondik sortu ete da Hume'ren ustez, erlejiño-giroko sentipen ori? Bakar-bakarrik bildurretik, eriotzeari dautsagun bildurretik eta gaiztoak betiko nekeetan izango dirala eta onak betiko zorionsu biziko dirala uste izatetik. Marka ori sartu eban Egilleak berak egindako lanean. Gure Hume sinisteduna da!

Erlejiño asko izan dira eta or nastatu dira sorginkeria, itsukeria ta gogorkeria. Benetako erlajiñoa nagusi adimentsu ta ikusi-eziña dagoala sinistea da, baiña ez dakigu ori nagusiena dan ala menpean dagoan, ez eta bakarra dan ala beste lagun

batzuk daukazan, zelakoa dan. Erlejiñoa bear-bearrekoa dau gizakiak baiña ez dauka oiñarri ziurrik.

☆☆☆

Ikusi dogu noraiñoako makaltasunera jausten da alglandarren enpirismo edo zentzunen bidea, azken baten dana zalantzan geratzeko bidera.

Enpirismu onen Hume dogu punterengoa, baiña norberaren burua ba-dagoala be ziurtatu. eziñera eldu jaku. Azkenean dana zalantzara daroa bide onek. Kant etorriko da bide batzuk zabaltzera.

An jauzi, emen zutundu, filosofiak gizakiari pentsabidea azaldu dautso eta billaketa egiteko askatasuna emon be bai, gauza bi oneik lagun dirala, mundu moderno edo barriari oiñarriak ipinteko ilustratuen aldia dator, jakitunen denporea, eta oneik entziklopedia'ren bidez batez be, berba egingo dauskue eta gaur daukagun mundu barriaren sortzailleak eurak dira. Ez guk nai genduken modukoak, baiña sortzailleak.

Olazar'tar Martin'ek

EUZKO SEME ALABAK

Argiz eta biotzez
apaindurik sortu zan
erria lurtean,
lorerik bikaiñenak
gozartuz, egokiro,
bizien artean.

Mendi orlei ta zelaiz
apainduriko lurra
egoan oinpean,
atsegingarria zan
baratzen dizdizera
urdiñarenpean.

Ederra ta bakea,
gogoz, alkartu ziran
euzko izadian,
jakituria dago
izarretatik adi
inguru guztian.

Maitasuna dario
lurralde ertsitsuak
zeru-goi ertzetik,
lur oro, dardar, dago
eskeintza gozoetan
biotz barrenetik.

Izadi bikain ortan
gizadi argitsua
agertu zan itzez,
giza seme-alaba
urre bitxiz jantziak
zoriontasunez.

Maitasun ta bakea
ziran erri gidari
zuzentasunean,
izkuntz zoragarria
erri dana onduten
jakintza bidean.

Paulin

SALMOAK

92N. SALMOA: AMA BIRJIÑA ETA SAN JUAN

Ama Birjiña Zaragozara
milagrozu juana zanean,
Jaunaren urte berrogeizala
ilbeltzan bi zan gaubean.
Eta etxera Zenakulora
aingeruak ekartzean,
“Jauna, eskerrak” esaten zuan
ausperturikan lurtean.

Geroagoan katolikuak
zan eleiza aunditua,
orain daukagun eran Eleiza
izandu zan edertua.
Amak etzion Joani esan
Zaragozan gertatua,
gero anaiak esan: “Bi aldiz
izan nau bixitatua”.

Berrogeigarren urtea zala
ilbeltzak bost zituala.
Joanek esan zion Amari
denbora etorri zala:
Efesora juateko txalopa
egun artan zijuala:
kejarrik gabe penatuai esan
bueltatuko zirala.

Eldu ziraden ta sartu ziran
txalopan besten antzera.
Ama Birjiña lenengo aldiz
itxasoan ibiltzera.
Ezagaturik an peligruak
asi zan erregutzero;
Jaunak erantzun: “Zuri, deitua,
elduko naiz libratzea”.

Egun gutxi barru jetxi ziran
Elesoko lur batean;
gaixo zeudenak sendatzen.
Ama aurrera juatean
Aukeratu zuen bizilekua
andre pobrien etxean,
Amari eman leku bat
Joan jarri zan bestean.

Amak eskerrak eman zizkion
etxe-jabe andreari,
bere lekura juana zanean
adoratuaz Jaunari.
Otoitz egiñaz eskatu zion
laguntzeko Eleizari,

aingeruak biraltzen zizkion
peligruan zeudenari.

Egun aietan igesi juan zan
San Pablo Damaskotikan,
Korintotarra dion bezela
jetxita paretetikan.
Aingeruak biraldu zizkion
Amak bere partetikan,
inpernu dana kontra zeukala
errukiz ikusirikan.

Judutar eta Erodes berak
San Paulo an ez iltzeko,
Pedro Santuak esana zion
jetilletara juateko.
Zesarean ta Tarson egia
erakusten jarraitzeko.
Ama Birjiñak mesede asko
egin zizkan bizitzeko.

93N. SALMOA: AMABIRJIÑA IA JAKOBO APOSTOLU SANTUA

Ama urrena oroitutzen zan
Jakobo illobarekin,
Zaragozako eleiza laga
zuan ikaslearekin.
Eldu zanean katalluñara
Italia nai arekin,
itxaso jun zan Asiaraiño
Aman billa pozarekin.

Billatu zuan Ama Birjiña
auspertua zan oiñetan,
eskerrak eman zizkan Amari
negarrez eta benetan.
“Seme Jakobo, izango zera
martiri egun auetan”.
“Ama, zu ikusi zaitzadala
laguntzen ordu orretan”.

Judutar gaiztok Eleizan kontra
zeuden arrabiz sututa,
San Paulo ezin arrapatuta
Jakobo an agertuta.
Kristogogoz predikatzen zuan
nola bizi dan piztuta.
Bi sorgin jarri zizken austeko
eziñik urreratuta.

Eraman zuen Erodesena
soldatu-tropak artuta;

onek agindu zuan iltzeko
laister lepua kenduta.
Danen aurrean Jakobok gogoz
Jesukristo aitortuta;
“Ama Birjiña, lagun eidazu,
nago sententziatuta”.

Ama Birjiñak dana entzun
bere alde eskatuta,
Jaunak aingeruk biraldu zizka
Ama eraman artuta.
Santiago lepua kentzeko
zeuken belaunikatuta,
begiratzean Ama ikusi
jarri zuan alaituta.

Gaixo ugari inguratuta
danak sendatu zituan,
Ama Jakobok an ikustean
altu itz egin nai zuan.
Aingeru batek: “Ixilik esan”
esana zion orduan.
Bedeinkatuta dana poztuta
iñork ikusi etzuan.

Birjiña begira zeguala
kendu zioten lepua,
Ama Birjiñak bere anima
zuan tronuan artua.
Aingeru talde aundiarekin
zeruan zuan sartua,
Jaunak ipiñi zuan aintzeta
oso asko goratua.

Bere gorputza gaubez ixilik
ikasleak zan artua,
eraman zuen Jopera eta
Galiziara sartua.
Birjiñan bidez aingeru batek
zan bidea zuzendua,
eta beste bat Birjiñan lanak
egiten zan gelditua.

94N. SALMOA. SAN PEDRO KARTZELAN

Poz emateko judutarrari
Erodesek aginduta,
Pedro santua preso zeukaten
katez seguru lotuta.
Jerusalenen zegoen Eleizak
Jaunari erregututa,
Pedro atera Ama Birjiñak
aingeru bat biralduta.

Juana zan Pedro Zenakulora
zeuden bildurrez betean;
ezagututa iriki gabe
zeukaten Pedro atean.
Nola milagro aterria zan
angoari esatean,

gau artan bertan igesi zuan,
peligruan ikustean.

Kartzelan Pedro etzeguala
Erodesek jakin zuan,
bera zaitutzen zeuden gizonak
kastigatuak zituan.
Eleizan kontra arrotua zan
arrabi aundiaguan,
aingeru batek Erodes jota
eritu zuan barruan.

Asi zan bere gorputza galtzen
illa zan arrak jatean;
bizitza au ta beste bizitza
galdu zituan batean.
Joan Bautista onek il zuan
goiñatakin bizitzean,
Birjiñak negar egiña zuan
galdu zala jakitean.

Baiñan Jainkoa abestu zuan
justua izan zalako;
Eleiza asko ugaritu zan
kontrakorik etzalako,
ez bakarrikan Galilean ta
judutarrak ziralako,
baita Joanek Efeson ere
erakusten zualako.

Joan asi ziran Eleiza jartzen
Amaren laguntzarekin,
milagro aundik egin zituan
Jaunaren graziarekin.
Bataiatutzen zituan asko
Kristo sinistearrekin,
iñoiz ikusi etziran gauzak
ikusten zeuden berekin

Griegotarrak beren eskolan
oso zeuden jakitsuak,
asko zirala Joanek danak
ziran kristau biurtuak.
Biraltzen zitun Birjiñangana
Amak ziran sendatuak,
lagundurikan beren lanetan
nekatuak eskuak.

Etsai Luzifer Birjiñan kontra
arro jeiki zan orduan,
aingeru-antza arturik danak
jarri ziran inguruan.
Arrokerizko pentsamentuak
sartu nai zizken barruan.
Ama ain umil, es ikusteko
sartu ziran inpernuan.

Aldalur'tar Justiñe
(klaratarra)
(Gasteiz'en)

11.-LANDARAK: TANTAIK ETA...

Bide-ertzetan, len, zugatz geiago ikusten zan, baiña berebillak euren aurka joten ebelako-edo geienak kendu egin dabez.

Bein baten gizaki bi egozan bide-bazter baten gosaltzen eta zugatzai buruz egiten eben berba. Bidelariak au esan eban:

– Zugatzak dodaz nire bidelari-lagun, euren lerroak adierazten dauste bidea norantza doan.

Basozaiñak au erantzun eutson:

– Nik be lagunak dodaz zugatzak. Nekatuta nagonean gaztañapean atsedentzen naz eta zugatz onen adar biurriak zomorpo askoren bide dira, or ibiltzen dira katagorriak, orriarte mitxeletak eta txori txiolariak egun-sentiari agur egiteko, or egoten da gabaz ontz zaratatsua. Olako egurretan idatzi dabez Turkestan'en aurkitu dabezan esku-idazkiak.

Ez dakigu noiztikoa dan zugatzak gurtzea, baiña Romulo'ren ikondoa sagaratua zan, brontze-aldiko Martin, sorgin-antzekoa, dantzaz gurtzen eben gazteak, maiatzeko zugatza gurtzen dabe Afrika-aldean batzuk, erreka bat igaro bear dabenean zugatz orren orri bategaz igortziten dabe bekokia, eta oria arri baten gaiñean izten dabe au alta-rea ba litz lez eta esaten dabe: "Guk errekea igaroten dogun artean jatsiko al dau ibai urdiñiak bere burua!"

Euskaldunen artean lizarra ta ereñotza sakratuak dira, arizta beneragarria.

Bidelariak erantzun eutson:

– Zuk asko irakurri dozu, antza dagoanez.

– Bai. Gutenberg'eri eskerrak! Au basorik baso joiala azal eze baten izkiak idazten ebillan eta azal ori etxera eroan eban papel baten batuta. Eta an ikusi ebazan berak zugatz-azalean idatzitako izkiak papelean itzi ebezan aztarrenak eta ortik zerbait atera leikela etorri jakon burura eta bereala asmatu eban irarkola edo inprenta. Baiña alkar izteko garaia dogu...

– Egia! Bidea daukat deika. Agur.!

☆☆☆

Agustuko egunik beroenean uso bat kokatu zan aritz baten. Ezkur batzuk jan ebazan, baiña ezkur bat osorik jausi zan lurrera. Orrelan urten zan bizirik ezkur ori. Eta bide luze bateri asiera emon eutson zugatz aundi eta eder izateko.

Berrogei urte geroago emon ebazan aritz arek lenengo ezkurak Aizea baiño beste iñor ez zan konturatu, euriak, beroak, leiak edo izotza inguruan izan arren, eta zugatzak bizirik jarraitu eban.

Orain orra or arizta, sendotasunaren ezaugarri, egoki eta arro. Bost gizaldi baiño geiago iraungo dau bizirik eta ilteko orduan, burua makurtu barik jausi egingo da.

Antxiñako errietan jainkoa zan arizta. Jupiter'eri be eskiña, basajaunen eta lamiñen ikusgarria zan. Buru-inguruan iñori ipintea, garaitzaren ezaugarri zan.

Grezitarrak ama zugatza esaten eutsoen eta euria ekarri nai ebenean, Jupiter'en abade batek aritz-adar bat buztiten eban Lizeo mendiaren gallurreko iturrian.

Euskalerrian Gernika'ko arbola, arizta da.

Eta gorde aztu barik Erregeen egunera arte Gabon gabe-

ko enbor lodia. Aregaz ez dozu ikusiko ez ospelik, ez tximistarik etxe-gaiñean.

☆☆☆

Izadi osoak illa dirudi. Sasien arantzak zorrotz eta mingor dagoz. Zugatzak ez dauke orriarik. Baiña migura (muérdago) adarrai lotuta urre-kolorez biribil eta bizi agiri da. Antxiñako erri batzuren zugatz sagaratua.

Druidak eritxen zelten abadeak espirituaren irudi egin eben migura eta illargiaren seigarren egunean ebagi egiten eben urrezko zega bategaz eta izara garbi baten gaiñera jaus-ten zan migurea edo zaparra. Adarrik txikienik be galdu barik.

Miguregaz gaiso asko osatzen dirala uste eben antxiñakoak.

Izadian gauza guztiak beteten zeregin bat, baiña migu-reak ez dauka zeregiñik: Txori batek ereiten dau, negu-txori polit batek, kolko legena dauan zozoak. Gero asi gogorrak botaten dauz. Eta lurrean usteldu egiten dira eta zugatzean geratu dan azia da biziko dana. Eta zugatzera azal bat sartu-ko dau andik janaria xurgatzeko. Iñon kontura janda, metro bat zabal daukan landara biribil biurtzen da.

Neguan zugatza legor dagoanean migureak eze jarraitzen dau.

Migureak zoriona ekarri eta bizitz illezkorra emoten ei dau.

☆☆☆

Basoak ez dira bardiñak lurraren garri-aldean eta iparral-Dean.

Txanela bat doa laban errekan isil-isillik., baso orritsu baten barruan doan errekan..A bai bakartade arrigarria!

Ba-dau lurak eguzkia iñoz sartzen ez dan trokia. An landarak orri zabalak daukez. Gorago palmondoak...

Zur arrotzen artean okumea da nagusi. Gabon lurraldeak urtero lareun eta ogeta amar milla tone bialtzen dauz erbestera.

Zur kolore ederdunak be lurralde askotatik etorten dira: Ebano edo zur baltza, palisandroa, kaoba, intxaurra, Ameriketako piñua, burdin-egurra, larrosea, lili ubela, liñua, alkanfora... sandaloa... Salomon'ek jauretzea egitea erabgi ebanean, bere aita-giñerraba zan Fenizia'ko Hiran erregeari Libano'ko zedroak eskatu eutsozan eta zedroz beteriko baso areik betiko utsik geratu ziran.

☆☆☆

Eta erretxiñea nondik dator?

Piñu gorritzka bat zaurituta ateraten da. Eta asko aterando-oren, piñua bota egin bear izaten da.

Arabia'ko gomak deritxenak alkazietatik ateraten dira. Laka be erretxiñea da eta barnizak egiteko be erabilten da.

Gomeari Peru'ko inditarrak "Ka-u-txu esaten dautsoe, zugatz negartia deritxon batek emoten dau. Lenengo borragomea London'eko ikasle batek erabili eban 1777n. urtean. A bai ikasle ospetsua.

☆☆☆

Iru milla ta bosteun urte dauzan zugatz bat ezagutzen dabe Kalifornia´n, garri gorria dauan sekuoia. Ogeta bost bizi-lekuko etxe baten neurria dauka, 85 m luze, eta garriko ardatz-lerroa amaika metro ta erdikoa..Azalak metro-erdiko lodierea dauka eta oso biguna da,erdian zulo bat egin eutsoen eta zulo orretatik ibiltzen zira berebillak. Aren zuragaz sei bizilekuko ogeta bederatzi etxe egin leikez Aren aurrean gizakiak txiki ikusten dau bere beurua.

Gure piñuak ez dira aundi-aundiak, ederrak bai, eta itxura askotakoak

Neguak bere edurragaz estaltzen dauzan saratsak gabon-giro poza gogoratzen dauzku, baita udan mendietan eginda-ko ibillaldi luzeak be..Piñuetatik urrean eukiten doguz zipresak. Batzuk Japon´en,txikiak dira, esku-barruan artzeko lakoak. Beste batzuk aundiak. Baiña olako zugatz azpian ez da bedarrik erneten, piñuak bedarrai pozoia dan lurruna botaten dautselako

...

Begiratu dagiogun ipar-aldeko basoari. Eguzkia dauke egunez, izotza gabaz eta Kanada´ko bordaria pozik egoten da, pikatuta azukera-astigarrai negarra kentzen dautselako. Erretxiñearen antzera, azala zauritu eta negarra ontzietara batzen dabe.

Berrogei urteko astigar batek lau ontzi beteten dauz eta epailletik jorraillera amabi litro izaten dira. Tanta-zaratak entzuten dagoan bordariak “ dólar-uria” esaten dautso.

Astigarra zugatz ederra da, zura oso ona eta zuri-gorri margoduna,

Zugatzetatik dator papela egiteko gaia be.

☆☆☆

Zugatzakaz zur edo egur-lanak egiten dira: Dagonilleko illargiaren lenengo ostiralean botaten da pagoa, kalotxak edo zapatillak egiteko, baiña intxaurra, urkia, lizarra eta ezkia be erabilten dira. Lanabide au galtzen doa.

Azkona izan zan gure aurretikoen izkillu bat:kañabereagaz egiten zan eta gai onegaz egin leitekez beste gauza asko.

Altzariak egiten dauzanari, ebanista esaten jako,bere gairik onena ebano edo zur batza deritxon zura dalako .Zur au ura baiño astunagoa da, unterik ezin leio sartu.

Pianoa egiteko bost zur-mota erabili leikez, arrabita edo bioliñaren zura astigarra izaten da.

Igali-landarak be zur ona eukiten dabe:Kerizak, maderik,intxaurrak, sagarrak, margo argia dauke.

Goroztia izaten da grabatzaillen zura, arotzak danetik, irudigilleak aledun zugatzak, otsaragilleak zumel biguna,upagilleak alkazia eta gaztañea, baiña artea be ona da koñakari usain gozoa emoteko eta artea da gure etxe zarretan betiko sendoa izan dan zugatz bat.

Danok bizi bear izaten dogu sabai baten azpian, orregaitik maite dogu gure etxea.

Borneo´n oraintsura arte zugatzetan egiten izan dabez euren etxeak eta or euken etsaien aurka gordeleku ona, orregaitik egiten dabez inditarrak be euren etxeak age-gaiñeetan. Lurralde otzetan etxeak zurezkoak izaten dira.

1860n. urtera arte itxas-ontzi guztiak zurezkoak ziran . Oraingo itxas-ontziak burdiñezkoak dira, baiña opor-ontzi bat egiteko gaur be kaoba artzen da.



☆☆☆

Aitatu daiguzan lorarik ez dauken landara batzuk.

Odoldiai alde bat il egiten jake eta beste bat sortu, azagari-buztenak orain milloi asko urte bizi dira lurrean eta tontor-antzeko sorta bat dauke muzturrean zabaltzeko, irea edo garoa ludian bizi da irurogeta bost milloi urte ezkeru, eta aizto antzeko orri baten dauz aziak.

☆☆☆

Eta perretxikoak? Oneik bizia kendu naiz emon egin leikee..Lanadaretan zarrenetarikoa da.. Olako batetik atera eban Fleming´ek penizilina osasungarria..

Ez dauke klorofilarik eta beste landara batzuren kontura bizi dira, parasitoak dira.

Kontuz ibilli ilgariak diranak alboratzeko eta ez uste izan pozoiak zidarra baltzitu egiten dauala, edo ospindun ur irakiñak pozia kentzen dauala. Kontuz! Dakianari itaundu!

☆☆☆

Lur-gaiñean landarak edergarri doguz, baiña askoz geiago edertzen dabez itxas-azpiak.

Algak lenen. Lotan egoten dira eguzkiak bere argia ta beroa agertu-arte. Eguzkiagaz itxartu eta biziten asten da eta barriro eguzkia doanean, bere kristalezko etxean lo egiten dau. Txiki-txikiak dira.Sargatsu itxasoan irureun metrokoa izan leiteke

Eta Atlantik itxasoan España baiño amar bidar aundiagoa dan itxas-bedartza dago.

Itxas-ertzeko aitzetan arraintxuak ain maite daben itxas-bedarra dago.

Asia´n jaten dabez itxas-bedar oneik eta ortik ateraten dabe Japonarrak Kantena deritxon janaria.

Itxas-ondoko lorategiak zoragarriak dira.

☆☆☆

Eta onelan, arduraz eta asko laburtuaz, amaitzen doguz gidari izan dogun Margo Ederdun Entziklopedia deritxon liburutik artu doguzan jakingarri oneik. Irakurle! Pozgari izan jatuz? Orrelan ba´da, neu be pozik geratzen naz.

Olazar´tar Martin

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²